



## AGINDUA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2026., 2027., 2028. ETA 2029. URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenez, lege horren 2. artikuluan aipatzen diren entitateek aurretik planifikatu behar dituzte emango dituzten dirulaguntzak, plan estrategiko baten bidez. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 2. artikuluekin bat etorritik, Uraren Euskal Agentzia Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko ente publikoa da; horrek esan nahi du abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 2. artikuluen barruan sartzen dela eta, beraz, haren dirulaguntza-jarduera aurretiaz planifikatu behar dela.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluen arabera, gai hauek jaso behar dira plan estrategikoan: zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dauden eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuekin erlacionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren; orobat jaso behar da planak lau urteko indarraldia izango duela, non eta, jarduketen izaera dela eta, epe luzeagoa behar ez den.

Onartuko den plan estrategikoa Uraren Euskal Agentziaren dirulaguntza-jarduera planifikatzeko tresna da; helburutzat dauka onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea eta helburu publikoak lortzearen alde lan egitea, laguntzak emanez. Plana programatikoa denez, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta, eraginkorra izateko, dirulaguntza-lerroak jarri behar dira abian, kontuan hartuz, besteak beste, ekitaldian erabilgarri dauden aurrekontu-baliabideak.

Azaldutakoa kontuan izanik, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan esleitutako eskumenak baliatuz, hau

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



## EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.**– Uraren Euskal Agentziaren 2026., 2027., 2028. eta 2029. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzea; agindu honen eranskinean dago jasota plana.

**Bigarrena.**– Uraren Euskal Agentziaren 2026., 2027., 2028. eta 2029. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren eta Uraren Euskal Agentziaren webgune ofizialetan argitaratuko da.

**Hirugarrena.**– Uraren Euskal Agentziak plan estrategikoan ezarritakoaren arabera emango ditu dirulaguntzak, baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude.

Aldian-aldian, plan hori berrikusi ahal izango da, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko titularraren agindu baten bidez. Agindu horretan, planaren aurreikuspenak dirulaguntza-deialdia egiteko unean dauden egoera materialetara eta aurrekontuetara egokitu ahal izango dira, bai eta dirulaguntzen arloko neurri edo jarduera berriak txertatu ere.

**Laugarrena.**– Plana indarrean dagoen urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, plana zenbateraino bete den ebaluatuko da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.2 artikuluaaren arabera egin behar den dirulaguntza-programen ebaluazioaren esparruan.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA

## **URAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2026-2029 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**

### **1. SARRERA.**

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua araberako (aurrerantzean, **DAEL** esango diogu lege horri), lege horren 2. artikuluan aipatutako entitateek –hala nola **Uraren Euskal Agentziak**– aurretik planifikatu behar dituzte emango dituzten dirulaguntzak, dirulaguntzen plan estrategiko baten bidez (aurrerantzean, **DPE**); plan horrek lau urteko indarraldia izango du, eta sail bakoitzeko titularrak onetsiko du, hargatik eragotzi gabe, gaiaren berezitasuna dela-eta, sailaz azpiko eremukoak diren dirulaguntza-planak edo sailei atxikitako entitateei bakarrik dagozkien dirulaguntza-planak prestatzea.

DPE hau entitate honen dirulaguntza-jarduera planifikatzeko tresna da, eta helburutzat dauka onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea eta helburu publikoak lortzearen alde lan egitea, laguntzak emanaz. Plana programatikoa denez, haren edukia ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta, eraginkorra izateko, dirulaguntza-lerroak jarri behar dira abian, kontuan hartuz, besteak beste, ekitaldian erabilgarri dauden aurrekontu-baliabideak.

Plana prestatzerakoan, zer interes publiko lortu nahi diren aztertu da. Era horretan bermatzen da efikazia- eta efizientzia-mailak areagotzea eta gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea.

Halaber, plana prestatzeko, aintzat hartu dira Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularra, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, eta DAELen 6.1 artikulua araberako nahitaezkoak diren edukia.

Horiek horrela, Uraren Euskal Agentziak, zeina Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko ente publikoa baita, 2026-2029 aldirako DPE hau landu du, sailaren titularrak onetsi dezan.

### **2. APLIKAZIO-EREMUA: OBJEKTIBOA, SUBJEKTIBOA ETA DENBORARI DAGOKIONA.**

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.p) artikulua xedatzen duenez, Uraren Euskal Agentziaren eginkizuna da bere eskumeneko arloekin zerikusia duten dirulaguntzak ematea. Artikulu horren gainerako apartatuetan jasota dauden eginkizunak ere Agentziaren eskumenekoak izango dira.

DPE honen eremu objektiboa eta subjektiboa Zuzendaritza Nagusiak ematea aurreikusten den dirulaguntzak baldintzatzen du; hain zuzen ere, Zuzendaritza Nagusia Uraren Euskal Agentziaren kide bakarreko administrazio-organoa da, dirulaguntzak

emateko ahala egikaritzeko gaitasuna duena, Uraren Euskal Agentziaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuaren 10.3.g) artikuluan ezarritako eskumena betez.

Zera dio artikulua horrek:

*«10. artikulua.– Zuzendaritza Nagusia.*

*1.- Zuzendaritza Nagusia Agentzia kudeatu eta ordezkatzeko duen pertsona bakarreko organoa da, ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legearen 11.6. artikulua ezartzen duen bezala.*

*2.- Zuzendaritza Nagusia administrazio-organoa da, eta administrazio-ahalak baliatzen ditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 5.1 artikulua araberako esleitzen zaizkion izaera publikoko eginkizunetan.*

*3.– Zuzendaritza Nagusiari dagokio Agentziaren zuzendaritza eta bere zereginak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta gainbegiratzea. Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 15. artikuluan finkatutako eginkizunak dagozkio, baita honako hauek ere:*

*(...)*

*g) Agentziaren eskumenekin zerikusia duten gaietan oinarriak ezarri eta dirulaguntzak ematea.*

*(...)*»

Denbora-eremuari dagokionez, DAELen 6.1 artikuluari jarraituz, DPE honek 2026-2029 aldirako aurreikuspenak biltzen ditu.

### **3. HELBURU OROKORRAK**

DAELen 6.1 artikuluaekin bat etorrituz, plan honetan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dauden eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.

Horri dagokionez, DPE honen bidez bultzada eman nahi zaio indarrean dauden ur-arloko arauetan ezarritako zenbait betebeharrak betetzeari eta lortzeari; hain justu, helburua da betebeharrak hauek betetzea: kendutako bolumenak neurtzeko sistemak instalatzea; datuak kontrolatzea eta Administrazio hidraulikoari bidaltzea, eta azaleko uren eta lur azpiko uren ingurumen-helburuak lortzea.

Horiek horrela, araudi hau aplikatu behar da:

1. 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.

55.4 artikulua: «Administrazio hidraulikoak zehaztuko du, oro har, erabilitako ur-  
emaria eta jabari publiko hidraulikora egindako isurketak eraginkortasunez  
kontrolatzeko zer sistema ezarriko diren dauden eskubideak errespetatzeko,  
benetan kontsumitutako edo erabilitako ur-bolumena neurtzeko, baliabideak egoki  
planifikatu eta administratzeko, eta uraren kalitatea ziurtatzeko. Horretarako, uren  
administrazio-emakiden titularrek eta edozein titulu dela-eta uren erabilera  
pribatiborako eskubidea duten guztiek neurketa-sistemak instalatu eta mantendu  
beharko dituzte, kontsumitutako edo erabilitako eta, hala badagokio, itzulitako ur-  
emariei buruzko informazio zehatza bermatzeko».

2. 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, zeinak Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen baititu.

«102 bis artikulua. Emarien kontrol eraginkorra uraren erabilera pribatiboetan.

1. Uren Legearen testu bateginaren 55.4 artikulua eta uztailaren 5eko 10/2001 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, uren administrazio-emakiden titularrek eta edozein titulu dela-eta uren erabilera pribatiborako eskubidea duten guztiek neurketa- eta informazio-sistemak instalatu eta mantendu beharko dituzte, benetan erabilitako emakida-emariei eta, hala badagokio, itzulitako ur-emariei buruzko informazio zehatza emateko ar-  
organismoari. Bestalde, ar-organismoek, neurri gehigarri edo osagarri gisa, neurketa- eta informazio-sistemak ezar ditzakete kudeatzen dituzten azpiegiturei edo garrantzi berezia duten zonei lotutako aprobetxamenduetan».

3. Agindua, 2017ko apirilaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, EAeko barne-arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dituena.

«1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduek erabilitako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak zehaztu, instalatu eta mantentzeko irizpide teknikoak ezartzea, horretarako gaitzen duen titulua edozein dela ere.

2.– Era berean, aprobetxamendu horien titularrek sistema horiei eta haien bitartez lortutako informazioari dagokienez dituzten betekizunak arautzea ere bada agindu honen xedea.

3.– Azkenik, betekizun horiek egiaztatu eta kontrolatzeko Uraren Euskal Agentziak dituen ahalmenak arautzen ditu.

4. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

«16. artikulua.– Lur azaleko urentzako ingurumen-helburuak.

Jarduera publikoak, lur azaleko urak babesterakoan, helburu hauek izango ditu:



*a) Lur azaleko ur-masa guztien egoeraren andeatzeari aurrea hartzea.*

*b) Egoera onean dagoen uraren behar besteko horniketa bermatzea, ur horretaz modu iraunkorrean baliatuta; horretarako, baliabide hidrikoak epe luzerako babestea hartuko da oinarri».*

*«17. artikulua.– Lur azpiko urentzako ingurumen-helburuak.*

*Jarduera publikoak, lur azpiko urak babesterakoan, helburu hauek izango ditu:*

*a) Lur azpiko uretara gai kutsatzaileak iristea saihestea edo kopurua murriztea, eta lur azpiko ur-masa guztien egoeraren andeatzea saihestea.*

*b) Lur azpiko ur-masa guztiak babestu, hobetu eta beren onera ekartzea, eta lur azpitik ateratzen den uraren eta sartzen denaren artean oreka bermatzea, 2015eko abenduaren 31rako lur azpiko uren egoera ona izatea lortzeko.*

Orobat, DPE honen asmoa da Uraren Euskal Agentziari tresna bat eskaintzea, erkidego arteko arroetan ur-politika eraginkorrak kudeatu, kontrolatu eta planifikatu ditzan, eta eginkizun hori gardentasunez eta gobernu onaren printzipioari jarraituz bete dezan.

ERANSKINA

<b>Organoa:</b> Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b> Bolumenak neurtzeko sistemak
<b>Dirulaguntza-lerroa:</b> 650/45001.1. Ur-aprobetxamendutik kendutako bolumenak neurtzeko sistemak eskuratu eta instalatzeko dirulaguntzak

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>				
<b>Helburua(k):</b>	<b>2026</b>	<b>2027</b>	<b>2028</b>	<b>2029</b>
<p>- Sareko uretarako sarbiderik ez duten lehen mailako ur-aprobetxamenduetatik kendutako bolumenak neurtzeko sistemak instala daitezzen bultzatzea eta sustatzea</p> <p><b>Ekintza:</b> Ur-aprobetxamendutik kendutako bolumenak neurtzeko sistemak eskuratu eta instalatzeko dirulaguntza</p> <p><b>Adierazleak:</b> Aurkeztutako eskaeren kopurua eta onartutako eskaeren kopurua.</p>				
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekikofinantzaketa-ehunekoa</b>				
	<b>2026</b>	<b>2027</b>	<b>2028</b>	<b>2029</b>
	Zenbatekoa €-tan	Zenbatekoa €-tan	Zenbatekoa €-tan	Zenbatekoa €-tan
<b>Aurrekontuaren finantzaketa. Uraren Euskal Agentziaren aurrekontuaren kontura</b>	<b>50.000</b>	<b>450.000</b>		

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	Lehen mailako ur-aprobetxamenduen erabiltzaile txikiak, hornidura-sarera konektatu gabe, etxeko erabileretarako eta/edo nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Ondoz ondo emateko prozedura. Laguntza ez itzulgarriak
Diru-laguntzan emakumeen eta gizonen berdintasuna indartzeko jarduerak egotea. Horien deskribapena:	EZ.